

# Funtsezko jarduerak

Aplikazioak aurrera egin dezan badaude beharrezkoak diren hainbat jarduera. Hasteko beharrezkoa da supermerkatuetara joatea bai produktua saltzeko, baita planoengatik eta egiturengatik galdetzeko ere. Informazio hori edukita, enpresa bat kontratatu beharko dugu aplikazioa gure gustura diseina dezan. Horretarako, supermerkatuek emandako planoak eskuragarri jarriko dizkiegu. Ondoren, app-store eta play storeren bidez app-a bezeroei eskuragarri jarriko diegu.



Behin aplikazioa sortuta egonik, bezeroek arazoak izan ditzakete. Horretarako, hasiera batean app-an bideo tutorial txiki bat izango dute, app-aren xehetasun guztiak ongi azaltzeko. Hala ere, honekin arazoak izango balituzte, gure web orrian dagoen gmailaren bitartez gurekin kontaktatu dezakete. Behin gurekin kontaktatzean, guk arazoa identifikatuko dugu eta gure informatikariei jakinaraziko diegu. Honela, bezeroei arazoa konpontzen lagunduko diegu. Honetaz gain (, app-aren mantentze eta eguneratze lanetaz ere informatikariak arduratuko dira.



App-ak garapen egoki bat izan dezan beharrezkoa da plataforma bat bezeroei aurrerapenak edo berrikuntzak azaltzeko. Horretarako webgune bat sortuko dugu, bertan azalduko dugu zein supermerkatutan egongo den erabilgarri gure aplikazioa. Honetaz gain, webgunean ere azalduko ditugu azken eguneratzeak eta aplikazioaren azken berriak. Gainera, instagrameko kontu bat ere izango dugu, publizitateari bideratua batez ere. Kontu honen bidez jendeari gure app-aren abantailak erakutsi ahal izango dizkiegu.

